

Euskarabentura Martin Ugalden

Berria

"Gaur esnatu gara Tolosan, Tolosan eman ditugu bi gau; atzo egin genuen deskantsu eguna, batzuetan etapa gogorrek-edo daudenean, ba, egiten ditugu deskantsuak. Orduan, esnatu gara Tolosan, Tolosako ikastolako ganbaran egin dugu lo, eta etorri gara, ba, herrietatik, pasatu dugu Zizurkil, Villabona... eta heldu gara Andoainera, egin dugu bisita, bueno, kontatu digute pixka bat Martin Ugalde Kultur parkeari buruz. Gero bisitatu dugu erredakzioa, eta, hori, eta orain, ba, bagoaz Hernanira, eta hor egingo dugu lo."

"Nik uste aberasgarriena dela dagoela jendea zazpi probintzietakoa eta baita ere Washington eta Patagonietako bi gazte daude, eta ba, nola euren ohiturak edo euren ingurua ba oso ezberdina da, eta, dena partekatzen dute, eta oso lagunak egin dira euren artean, eta hori, ba, elkarbanatzea niretzat da onena, aberasgarriena."

"Ba nik Lukas izena dut, 16 urte ditut eta ba, honat etorri naiz, ba, lehenago, etxean denak frantsesez mintzatzen direlako, eta orduan, esperientzia bat bizitzea denek euskaraz mintzatzen diren leku batean, ze, ba, primeran iruditzen zitzaidan, eta, ba, gauza anitz ikasteko ere euskara, Euskal Herriari buruz, azkenean, ez dakidala ezer... Ez dazkitalako gauza anitz kulturari buruz eta herriak eta hori guzia. Eta, ba, orain arte primeran pasatzen da."

"Ba, onena, askotan galdetu digute, eta da, gehienbat, dena, bere konjuntuan, gauza bat bakarra ezin nuen aukeratu. Asko ari zait gustatzen, e, hainbat hitzaldi eta horrela, oso interesgarriak ari gara jasotzen, euskararen egoerari buruzkoak, eta hori oso interesgarria egiten ari zait."